

Goibekokale

1996ko iraila 16zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

ERRELEBOA ELIZAN

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

**ESTEBAN
MUNILLA**

**JOSE LUIS
APERRIBAI**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Elgetako Txirrindulari Elkarteak Kepasa Kolegiri

OSO MINDUTA GAUDE

Aurkezpen bezala "lotsarik ez daukagunok" egindako ekintzak aipatu behar ditugu:

Hamabi Euskadiko Mendi Kriterium, Euskal Bizikletako etapa bat eta Euskadi itzuliko beste etapa bat (Elorriotik Elgetara, erlojupeko iguera).

Hamairugarren Kriteriumaren antolaketa zalantzan dago, orain arte eginiko lanarekin ez baitugu satisfazio bakarrik ere jaso eta "adarkadak" aldiz asko izan baitira.

Zu "lotsa askoko" pertsona bezala, gonbidatuta zaude datorren hileko aldizkarian zeure ekintzak azaltzera, azpian zeure izen eta abizena jarriz noski.

Zure ekintzaren azterketa eginez gero, bertan jartzen duzu, herriko lehenengo sailkatuari garairurra eman behar zaiola beste herrietan egin ohi den bezelaxe. Zure informaziorako, beste herrietan, partehartzaile herritar bakarra baldin badago, ez du inolako garairurrik jasotzen. Gure aldetik, nahiago dugu beste era batera laguntzea eta gizabideak agintzen duena jarraituz, ez daukagu zertan laguntza horien berri eman beharrik.

Zure eskutitzean azpimarratzen duzu ez dakigula txirrindularitza zein gogorra den. Horri buruz esan, txirrindularitza ezagutu eta gustatuko ez balitzaigu, ez ginatekeela ekintza honetan lanean ariko.

Aholku bezala, jakin, satorren antzera lurpean ibili eta noizean behin gainazalera atera, min

egin eta berriz ezkutatu beharrean, hobe zenukela talde berri bat sortu edo dagoenari laguntzea, edo behinik behin lanean dabiltzanei kalterik ez egitea.

Azkenik eta gauzak argi gelditu daitezen, esan, hauxe dela gure azken hitza, ez daukagula gai honekin aurrera jarraitzeko asmorik eta are gutxiago, izenik eta abizenik ez duen pertsona bati azalpenak ematen ibiltzeko gogorik.

Elgetako Txirrindulari Elkarteak

Frontoiaren margoketa eta beste kontu batzuk

"Elgetako udaletxeko Herri Batasunaren Batzordekideak" sinatuta, **Goibekokale** aldizkariaren maiatzeko alean kaleratutako idatziari buruz, ondorengoak argitzen ditugu:

1.- FRONTOIAREN MARGOKETA:

Apirilaren 14an (igandea), Patxi Basauri alkateak 17:00ak inguruan, Juan Luis Uberaren (Ozkarbiko Pilota saileko Lehendakaria) telefono deia jaso zuen, luza gabe alkatearekin egon nahi zuela esanez.

Berehala Ozkarbi elkartearen bildu ziren Juan Luis Ubera, Rebeke Ubera eta alkatea. Bertan, alkatearen jakinean jartzen da Profesional mailako pilota partiduak jokatzeke direla hurrengo asteko ostira-lean Elgetako frontoian, Asegarcek antolarurik eta segurazki ETBren bidez zuzenean emanda.

Azaldutakoaren aurrean

eta 4 t' erdiko txapelketako finala eta nonbait beste partidu batzuk ere ETBtik emateko zirela eta, (gertatu den bezala), profesionalen partidoak emateko frontoiaren margoketa aurreratzea komenigarria zela ikusi zen.

Margolariarekin elkartu eta alkatearen esanetan frontoiaren margoketa martxan jartzeko azalitzeko.

2.-ELGETAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA: 1995. urteko dirulaguntza:

1995eko uztailaren 26an egindako gobernu batzordeak 200.000 pezetako dirulaguntza ematea ahobatez erabaki zuen (Patxi Basauri, M^a Jesus Lete eta Xabier Ezpeleta), eta ez alkateak (HB-k esaten duen bezala).

3.-BUKATZEKO:

Alkateak beste eginkizun batzuen artean, presazko gaiak sortzen direnean jarduntzeko beharra dauka.

Eta horrela egin du frontoiaren margoketarekin. Logikoki, HB-ko kontzejalak ez dute ardura hori, HB-ko zerrendaburu izan zen Xabier Ezpeletak 1995eko maiatzaren 28ko herri hauteskundeetan ez baitzuen Elgeta herriaren aldetik nahiko konfidantza jaso.

Elgetako Udaletxeko EAJ-PNVko zinegotzi taldea



Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Kultura dela eta...

Abuztua. Ekaitz itxuradun egun bat zen aita-semeak buelta bat egiten ari zirenean... eta elkarriketa ondokoa...

- Bada hitz bat askotan entzun arren nondik ebatu ez dakidana. Zer da kultura delako hori? Esan zuen neskatoak isilunea gaindituz.

-Bueno... -esan zuen aitak zalantzatu- elementu asko dituen hitza da. Gauza asko batera lan-tzea modukoa da.

- Zein gauza? -ekin zuen berriz alabak-

-Kulturaren gauza garrantzitsuenetariko bat hizkuntza da. Sentipen eta ideiak adierazteko balio digun tresna.

-Eta zein beste gauza?

-Kulturaren barruan kokatzen dira herriko ohiturak ere.

-Ohiturak dira gure jaiak, dantzak, kirolak...

Ez al da horrela?

-Bai, Ohiturak zeintzuk diren esateko adibide onak dira, ahoz-aho edota idatziz darabiltzagunak.

-Aita, eta zer gehiago da?

-Sinismenak ere kulturaren zati dira.

-Sinismen erlijiosoak, kultoak, baselizak, eta horrelakoak moduan -zehaztu zuen neskak-.

-Bai. Eta baita modu guztietako sinismenak ere, kondairak eta herri narrazioetan agertzen diren moduko sinismenak.

-Ikus dezakedanez -jarraitu zuen alabak- zeri-kusi zuzena du kulturak gaurdaino heldu zaizkigun bizitzeko erekin.

-Noski, eta baita pertsonak dituzten beste balore motekin, jarrerekin eta normekin ere lotura du.

-Konturatzen hasi naiz -bukatu zuen alabak- kultura hitza oso zabala dela.

-Horrelaxe da bai. Dena den, beharbada garrantzitsuena norbere kultura ezagutzea da ondoren berori maitatzen ikasteko.

Horrenbestez, babesleku bila bukatu behar izan zuten elkarriketa, uda sasoiko lainoak aita-alabak busten ari baitzen.

Manolo Cainzos



Autokritika

Edozein erlijiotan, gizakia eta naturaz gaindiko errealitate baten (Jainkoa gehienetan) arteko erlazioa lantzen da. Erlijio honen barnean sartzen dira alde batetik, bere oinarri teorikoa osatzen duten siniste eta dogmak, eta bestetik, jokersa



era indibidual eta sozialarentzako arauak, zeintzuk beharrezkotzat ikusten diren Jainkoaren gorentasuna manifestatzeko.

Erlijio katolikoan, badaude hainbat dogma (Jainkoaren Hirutasun sakratua, Mariaren birjinitatea, etab.), fedearen bitartez sinisgarriak bihurtu ahal zaizkigunak; baina sinismenarekin nahikoa ez denez, mendeetan zehar, Eliza arduratu izan da, sinismen horretaz gain konportamentu "egoki" bat ere izan dezagun, arimaren salbazioa lortzeko. Ene uste apalean, Elizak bigarren gobernu baten funtzioa hartu du, zer egin eta zer ez egin esan digu, eta horrela, zerua lortzea, funtzionari postu bat lortzearekin gonbaratu daiteke, sumisioan, hain zuzen ere.

Gizakien eboluzioak aurrera jarraitzen duelako edo, gero eta jende gehiagok erlijioa salbazio tabla bat bezala ikusteari utzi dio. Benetako fedea bilatzen saiatzen da, betirako kondenatua izateko beldurraz hurrunduaz, eta orduan, Elizaren papera birplanteatzeko ordua ere iristen da. Zer da Eliza (Eclesia=asanblada), sinistedun guztien bilkura baino? Zein da apaizei dagokien papera "asanblada" horretan? Zertarako zelibatoa, apaiza, apaiz izateaz gain enpresaria ere izan daitekenean (horrek denbora kenduko ez balio bezala)? Non gelditzen gara emakumeak? Non antisorgailuak erabiltzeko eskubidea?

Ez gara Ertaroan bizi, Elizak (eta batez ere katolikoak) aurrera jarraitu behar du, gaur egungo gizakiaren pentsamoldera nolabait egokituz, izaki arrazionalak generala ulertuz. Eta fedea arrazoiarekin aztertu ezin bada ere, badaude beste hainbat gauza arrazoiaren azterketa sakona behar dutenak. Zer moduz geure sinismenaren autokritika batekin hasiko bagina?

Ibane Abasolo.



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarteak. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien erregelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Manolo Cainzos, Ibane Abasolo eta Jabier Arantzeta. **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

DIRU LAGUNTZARIK EZ DA LORTU

-Abuztuaren 4an botatako txingorra eta harriak sortutako kalteentzako ez da diru laguntzarik lortu ahal izan-

Abuztu honetan harriak eta txingorrek egin dituen kalteei laguntza ekonomikoa aurkitu asmoz, udaletxea Gipuzkoako diputazioarekin jarri zen harremanetan abuztuaren 8rako. Izandako kalteen berri emateko, jende ugari hurbildu zenez, udalak presazko ohar baten bidez Diputazioari jakinarazi zizkion 55 milioitako kalteak. Denborarekin kalteak erdia izango zirela erakusten zuten. Diru laguntzarekin batera, laguntza teknikoak ere eskatu zen.

Lantalde teknikoak irailaren 9an bidalitako oharrean jakinarazi duenez, "zonalde katastrofikoztat" izendatzeko, Gobernuaren izendapena jaso behar du. Diputa-

zioaren idatzian, Elgetak ez duela inondik ere baldintzarik betetzen irakurtzen da. Patxi Basauriren ustez "horrela ez dago ezer egiterik. Azpiegituretan edo industrian kalterik egon izan balitz agian laguntzaren bat lortuko zen, baina ez dago horreolakorik kasu honetan".

Bigarren pausua, "Consorcio de Seguro" deritzan Estatuko aseguru jotea izan zen. Kasu honetan, norberak seguro bat badu eta jasandako kalteak estaltzen ez badizkio, honek lagundu egiten du. Baina 1986. urtetik aurrera, txingorra eta harriaren eraginez sortutako kalteak, kanpo gelditzen dira.

Gas horniketa

Herriko gas horniketaren inguruan dagoen atzerapena, Repsol enpresak Industria Sailari paper eta dokumentu guztiak eman ez diolako da. Hau konpontzen den momentuan ekingo diote lanari.

Urriaren erdialderako kaleko lanetan hasiko diren arren, etxetan ipini behar dituzten hodiak, 15 egun barru edo hasiko dira sartzen. Neguaren arabera eta dena ondo badoa, otsailerako amaitutzat joko dituzte lan guztiak.

Guztira 250 eskari inguru daude eta gehiago egongo direla espero da, bai etxe bai industriari begiratuta.

JOSUNE AGIRRE, HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA: "HAUR KOPURUA MANTENTZEN DUGU BI KURTZO GUTXIAGO IZAN ARREN"

1996-97ko ikasturtea irailaren 16an hasi zen. Aurten pasadan urteko haur kopurua mantentzen da, 91 umerekin. Zuzendaria Josune Agirre da ikasturte honetarako.


Aldaketa nabarmenena aurreko kurtsoarekin gonbaratuz gero "bi kurtso gutxiago edukitzea" dela esan digu Josune Agirrek. Irakasle kopurua 10ekoa da: 6 egun osoz gaudenak eta beste lau egun erdiz. Bestetik, haur gehien dituen kurtsoa 15ekoa da eta gutxien dituenak lau ditu.

Josune Agirrerri, joan den urteko balantzea eskatu diogu: "Txarra eta arraroa. Alde guztieta-

tik, irakasleetatik hasi, jendea, gurasoak, eskola...". Puntu honi dagokienez, irakasle guztiak beraien adostasuna erakutsi zuten.

Eskolan obrak egiten jarraitzen dute, eta ez direla amaitu azpimarratu du. Jolas lekurik ez dute oraindik. Dena den "dirua ez dela iristen" gehitu zuen Josune Agirrek.

7885 ordu sartuko dituzte ikasten eta lanean 91 ume hauek. Zuzendariak honoko gomendioa luzatzen die guztiei: "onak eta langileak izan".



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



EROSLE
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190




zeleta jatetxea
tel:768151
gustora
sentituko
zara

GRIPEAREN KONTRAKO TXERTAKETA KANPAINA HASI DA

-65 urtetik gorakoak eta gaixotasun kronikoak dituztenak dira arrisku taldeak osatzen dituztenak. Joan den urtean 162 txertaketa egon ziren-

Osakidetza gripearen aurkako txertaketa kanpainari ekin dio. Irailaren 16tik urriaren amaiera bitartean irauten du 1996ko kanpainak. Iñaki Urgoitiaren (Elgetako medikua) esanetan eta Mankomunitateko datuen ondorioak ikusita, 65 urtetik gorako txertaketen portzentai altuena du Elgetak, 147 txertaketa, %76,9.



"Arriskudun taldeak dira txertoa hartzen dutenak. Urtarriletik aurrera du indar gehien gripeak".

Udazkena eta neguarekin batera etortzen da gripea ere. Txertaketen helburua, arrisku haundiena dutenei babesa eskeintzea da. Talde arriskutsuen artean, 65 urtetik gorakoak eta gaixotasun kronikoak dituztenak daude: diabetesa, biriketako eta bihotzeko gaitzak, gibel eta giltzurrunetako eriak... dena den Iñaki Urgoitia medikuaren esanetan, "aldi bakoitzean gripearen birusa ezberdina denez, osasun ona izatea ez da gripearen aurrean pasaporte, edonori toka dakioko". Kasu guztietan ere, behin harrapatuz gero, "onena ohean edo deskantsuan egotea da, eta zerbait larriagoa bada medikuarengana jotzea".

Txertaketan parte hartzen duten gehienak arrisku talde horien barruan daudenak dira. "txertaketa maila, Mankomunitateko altuena da Elgetan, 65 urtetik gorakoei dagokienez, eta gripearen indarra, gainontzeko herrietan gertatzen den maila berekoa da" Iñaki Urgoitiaren ustez.

Urtarriletik aurrera izaten dira herri mailari dagokienez kasu gehienak. Aholku berezirik ez dago gripea ekiditzeko orduan "ez dago frogatua bitaminek lagundu dezaketenik birusaren aurrean, beraz tokatuz gero, pazientzia eta deskantsua dira gomendiorik onenak" Angiozar eta Elgetako medikuaren ustez.

Herri antolaketari buruzko eztabaida irekia

Irailaren 28an udaletxeko areto nagusian, goizeko 10etan, herritarrei eta talde desberdinei deialdia egiten zaie "Etorkizuneko herri antolaketa" deritzan hitzaldian parte hartzeko. Antolatzen den bigarren bilera da. Aurrekoa, jende gutxi bildu zenez, irailaren 28ko hau antolatu du udalak. Gaiak: etxebizitzak, industria, azpiegiturak, aisiladiko tokiak... aztertzea da. Bildutakoan artean lan taldeak eratuko dira gai desberdinak aztertu eta ondorioak atera asmoz.

Traste zaharren bilketa

Urritik aurrera, tamaina haundiko trasteak hilabete bakoitzeko lehenengo ostiralean bilduko dira. Ostiral hori jai eguna izango balitz, zerbitzua 2. ostiralean egingo da. Aurten azaroko eta abendu-ko lehen ostiralak jai eguna direnez, azaroaren 8an eta abenduaren 13an bilduko dira. Hilabete honetan 27an izango da bilketa eta urriaren 4an. Zaborrak goizeko 7etatik 8etara bitartean atera behar dira.

Biztanle erroldako datuak

Aurtengo maiatza eta ekaina bitartean egindako erroldan 984 biztanle erroldatu dira Elgetan. Horietatik emakumezkoak 476 dira eta gizonezkoak 508. Aurreko urtearekin ez du aldaketarik izan, gizonezkoak 501 ziren eta emakumezkoak 483. Biztanle kopuru berdina. Etxebizitza kopurua 422 da: 310 bizilagunekin eta 112 hutsik edo denboraldikoak. Arrazoi ezberdinengatik erroldatu ez direnak 30 dira: bekak, diru laguntzak, lana, ehi-zarako kotoak eta inon erroldatu nahi ez dutenak daude tartean.

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel:768273

Kartaka jolasteko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Patxi Taberna

Azkuneta auzoan argiak ipini dituzte.

Irailaren hasieratik argi publikoak ikus daitezke Azkunetako etxarteak argitzen. Iaz urak ipintzeko lanak egin zirenetik azpiegitura egina zegoen, baina aurtengo udarte ezin izan da burutu argiak ipintzeko lan hau. Bost farola dira dagoeneko ipini direnak eta beste hiru falta direnak, aurrekontu akats batengatik Frantziña-Barri eta Migelena etxeetara ipini barik gelditu dira eta momentuz argiok.

Aspalditik eskatutako beharra da argi-publikoak auzune eta baserri etxe guztietara zabaltzea eta, dirudienez, hau lehenengo pausua izan da.

Frontoiari teilatua urtarrilean hasiko dira ipintzen.

Jakinda azkenik Angiozarko "Arbiaska" Frontoiari teilatua ipintzeko konkurtsoa zein proiektuk irabazi duen: Javier De la Fuente eta Pedro Azkue arkitektoen proiektua izan da irabazlea eta, 1997ko urtarrilean hasita, bi fase-tan burutuko dira lanak.

Lehen fasean teilatua bera egingo da, horma, lur eta jarlekuak ere konponduko direlarik. Bigarren fasean dutxa eta aldagelak egingo dira eskola eta mendiaren tartean, Elgetarako bidekurutze alderutz. Lanon kostua 50 miliokoa izango da. Bigarren fasea datorren urtean sartuko da aurrekontuetan.

Arbiaska Frontoiak, bukatzen denean, arauak eskatzen duten baldintza guztiak beteko ditu bertan edozein motatako partiduak jokatzeko, profesionalenak zein afizionatuenak, eta inguratzen den edozeinek ere leku ederra edukiko du bere esku.

ASTE KULTURALA

San Migel Jaien egiataruren barruan hainbat ekitaldi kultural burutu dira jai giroan sartuz joateko. Pasa den eguastenean, hilak 25, jendez beteta egon zen Saloia Joseba Egibarren OZEANIARI buruzko diapositibak ikusteko. Irudi eta soinuaren arteko efektu ederrez gozatzeko aukera izan zuten ber-

traratutakoek Ozeaniako kultura eta leku desberdinak ezagutzeko gaituzte.

Bestalde, eguenean Angiozarko Telebistak emanaldi berezia eskeini zuen: Dokumentalak, Zine Komikoa eta Euskal Zinema ikusi ahal izan ziren arratsaldeko 7etatik aurrera gauerdirarte.

AGIOZARKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 27, BARIKUA

Arratsaldeko 8etan Jaien hasiera

Kanpai jote eta etxafliruekin.

20:15etan - Ikurriña jartzea.

20:30etan - Kalejira.

21:30etan - Herri Afaria Muxu-

Truk trikitalariekin.

23:30etan - DANTZALDIA MUXU-TRUK taldearekin plazan.

Goizaldera Mendaroko Txokolate beroa banatuko da.

IRAILAK 28, ZAPATUA

15:30etan - Angiozarko XXV. Tiro Plato txapelketa.

16:30etan - Umeen Jolasak

Pinpoi txapelketa.

19:00etan - MUS TXAPELKETA

AUTOPULLMANS ARABA

Sari Nagusia

22:30etan - BRISKA TXAPELKETA

AUTOPULLMANS ARABA

Sari Nagusia

23:30etan - DANTZALDIA

LOTXO taldearekin.

Goizaldera Oñatiko Txokolate

beroa sabelak gozatzeko.

IRAILAK 29 SAN MIGEL,

DOMEKIA, Herri Eguna

11etan.- Meza Nagusia San Migel

Goiaingeruaren Elizan Bergarako

Txilintxa Abesbatzarekin.

11,45ean.- Txilintxa Abesbatza.

12,15etan.- Luntxa Pagomendi

Elkartean herriko jubilatuz

guztientzat.

Kaleetan zehar pasakaileak

trikitalariekin.

16:30etan - HERRI KIROLAK

AIZKOLARIAK

Angel Arrospide, Joxe Ugarteburu

eta Iñaki Azurmendiren aurka.

Egingo duten lana 12 kanaerdikora

izango da.

HARRIJASOTZAILEAK

Mutrikuko Aitzeta gaztea

TRONTZALARIAK

Angiozarko bi gazte bi nagusiren

kontra.

Iluntzean San Migel Zeruratzea

"Agur Agur Migel guria..."

kantatuz.

Plazan Dantzaldia Trikitalariekin.

IRAILAK 30 ASTELEHENA, SAN

MIGEL TXIKI EGUNA.

Arratsaldeko 4,30etan -

Angiozarko Eskolako

Umeen Antzerkia

Jolasak

Parte hartu duten guztientzat

txokolate jana.

Taberna Zaharra
jatetxea


Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Zure publizitatea hemen
azaltzea nahi baduzu deitu
telefono honetara:

78.90.85

LEHIAKETA



Oso zaila da, parabolika bat dirude, toldoa, arkuak, beira birziklatzeko ontzia... Ez, uda garaian liburuak irakurtzen direla eta (hala diote...) liburuekin zerikusia duen argazkia jarri nahi izan dugu. Horretarako zer hobeto liburutegira joatea baino. Zuetako asko ez zaretela larregi joaten dirudi. Beno, liburutegia dela argi duzue, ezta?



Oraindik ere ez baduzue sinisten bueltatxo bat egitea besterik ez duzue.


Asmatzailearen izena ematea asko gustatuko litzaiguke baina oraingoan

irabazle **Goibekokaleko** lantaldea izan da. Herriari enbido txiki bat bota diogu eta bi harri jaso ditugu. Orain zuen txanda, ea ordagoa jo eta irabazten duzuen.

Alboko hau zer den? Ba objektu bat dela aurreratu dezakegu, **guretzat oso preziatua dena gainera. Zer da?**

Erantzuna bidali **Goibekokalera**. Birentzako afari ederra irabaz dezakezu. Animo.

Goibekokale Salbakor kalea 2 Kultur Etxea, Elgeta.




Izena eta abizena: _____ ✂


Erantzuna: _____

Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Zer pentzatzten jatzu abadian lana egon dan zazpi urtietan?



Bihargiña (27 urte)

Bastante mobiduda dala pentsatzen dot herri asuntuan, elixia barritu eñ dau eta. Beste aldetik, eztabidak eon dia fede asuntuan, nik danak ez dittut esautzen eta ez dot nahi baloratzia, hor keja batzuk eon zian, eta batzuk arrazoa bestiek ez, hori da nere iritzixa.




Ikaslea (19urte)

Elixia restauratzeko eta eñ daben lana ondo pentsatzen jata, baina gero ikusi dot herrixan jende gaztiakin tratu gehixau euki dauela nausixakin baino. Berak kalteik ez dau eñ, baina jende gaztiengan influidu, asko eñ dau. Hortik bakotxak bere iritzixa etara daixela.



Etxekoandrea (40 urte)

Normala, abade batek eñ bihar daben lana. Neretako jende gaztia ez dau jakin irabazten, ez eruan daben bidetik, beste bide batetik eruan bihar zeban hori lanoi.




Bihargiña (49 urte)

Neri abadian lana normala pentsatzen jata Elixia konpontzia eta ondo pentsatzen jataz. Nik ez dot euki sinpatia asko abadiakin. Neretako gaztiekin ez da ondo ibili.



Etxekoandrea (52 urte)

Lan asko eñ dau. Gauzak ordenau eñ zittuan, lehen ez zeuazen gauzak, katekesia adibidez jarri eñ dau martxan, elixia be konpondu eñ dau. Gaztiekin lehenengotan lan asko eñ zeban baina gero ez horrenbeste.



Bihargiña (48 urte)

Ni ez nai asko enterau horrena asuntuana. Elixan eñ dittun obrena ondo pentsatzen jata, baina edozeinek eñ zeinkiela pentsatzen dot. Gaztiekin euki daben temiana ez dot nahi iritzirik emon.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxes: 771476 ARRASATE.

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire
girotua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxes: 78 90 46

♈ **Aries:** Ura baino sosuaua haiz, bakalau!!

♉ **Taurus:** Zezena moduko adarrekin etorri haiz eztok? Torero.

♊ **Geminis:** Zenbat herri laga dittuk zerbeza barik? Barrilete.

♋ **Cancer:** Aprobetxau lan egunak, gero jai egunak eukitzeko.

♌ **Leo:** Kontuz korridekin peligrosuak diaz eta!

♍ **Virgo:** Txupatxusa bezain gozua haiz.

♎ **Libra:** Sikologuai bueltatxo bat eittia ondo etorriko jata.

♏ **Escorpio:** Argi! elektrizidadiakin kalanbraso bat hartu nahi ezpok.

♐ **Sagitarius:** Trankildu laster etorriko dia berriro opporak.

♑ **Capricornius:** Oin be gizendu, halako martxan atiak zabaldu bihakoittuazau.

♒ **Acuarius:** Ez gorde trajedebañua ondio falta eingo dua eta.

♓ **Piscis:** Bere urtebetetzian ez haizela akordau? Ez dok balio 5 pezeta be.

Arrate Elkoro Dendarixa (55urte)

Nun eon za udan? Basarrixan.

Nora juango ziñake? Paris edo Holanda edo holako leku batera.

Ze tabako saltzen da gehixen? Baltza.

Erretzen dozu? Nik ez.

Ze esango zontzake erretzaileei? Piskat gutxitxuau erretzeko.

Jende zaharra ala gaztia etortzen da gehixen? Danerakua.

Tabakuaz gain ze saltzen dozu? Galtzak, aterkin eta erregaloko gauzak.

Frakak ala gonía? Gonía.

Koloreik gustokuena? Urdina.

Zapatak ala zapatilak? Zapatilak.

Janari gustokuena? Kafetesnia zopekin.

Pizza, hamburgesa ala porrupatatak? Porrupatatak.

Basarrixa ala kalia? Basarrixa.

Estankuan lana eta etxian zeinek? Danok antzera eitten dou.

Goibekokale

irakurtzen dozu? Bai, dana.


Idatzi dozun azken kartia? Ez nai gogoratu be eitten ixa.

Mikrouhin ala lapikua? Uste dot mikrohuina izango litzakela onena.

Zenbatian behin juaten za pelukerixara? Hilabete terditik behin joaten nai.

Intxorta, Eguarbitza, nora lehenau? Bixak, baina azpaldi ez nai juan Intxortara, Egoarbitzara gehixautan juaten nai.

Bukatzeko, ze esango zontzakie zure bezeruei? Etortzeko.



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Aretkale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN**

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola
VIVO
Janari
denda



ESTEBAN MUNILLA: "APAIZ EDO MONJA JOAN ERABAKITZERAKO ORDUAN APAIZAK EZ DU ZEREGINIK"

Zazpi urtez gurekin izan ondoren Esteban Munillak bide berri bati ekitea erabaki du. Gure artean egon den denbora horretan esamez ugari sortu da Estebanen inguruan eta Goibekokalek berekin egon nahi izan du bere agurrean. Apaiz berriari "denen zerbitzurako gogoz lan egitera etortzeko" aholkua luzatu dio.

- Elgetako parrokiari zazpi urte. Zein da zure balorazioa?

Oso urte aberatsak izan dira. Nere lehenengo parrokiari izan da eta neretzat esperientzia izugarria, ahaztezina. Nire lehenengo esperientzia izan da eta hori beti go-goan geratzen da. Ikasteko lekua izan da dudarik gabe.

- Herrian fedea piztu dela esan dezakegu?

Ereiten saiatu nahiz behintzat. Horixe eskatzen digute eta ni behintzat saiatu nahiz. Galdera hau beste batzuek erantzun beharko lukeetela uste dut.

- Nola sartu zitzaizun abade bokazioa?

Ufff ze galdera konplikatu elkarrizketa batean erantzuteko. Bokazioa jainkoak ematen duen deia da eta hori garbi eduki behar da. Ni elektrizista nintzen eta hasiera batean horixe zen nire plana; bapatean Jainkoak niretzako beste plan bat zuela konturatu nintzen eta hau besteei nire bizitza emateko ez bakarrik norberaren familia-

ri baizik eta beste familia batzuei ere. Bestalde banuen etxean erreferentzi bat anaia ere apaiza baita eta banekien gutxi gora behera zer zen eta plana ausnartu ondoren baietza eman nion.

- Zerk bultzatu zaitu horrela jantzita ibiltzeko erabakia hartzera?

Aita Santuak horrela agintzen duelako.

- Zer esango zenieke elgetarrei zure agurra dela eta?

Eskerrak emango nieke nirekin izan duten "pasiendiagaitik" (broma modura). Datorren apaizari niri eskaini zidaten harrera emateko eta niri lagundu didaten bezala laguntzeko.

- Zein uste duzu dela herriari zurekiko duen ikuspuntua?

Ufff hori beraie galdetu beharko diezu (barreak). Askok eta askok esan didate bistan gelditu dena elizan egindako lanak direla. Fede mailan egindako lanak berriz ez dira neurtzeko errazak horretarako ez baitago termometrorik.

- Elgetatik nora zoaz? Zein izango da zure egitekoa han?

Donostiako erresidentziara noa. Gaixoei kasu egitea izango da nire betebeharra; sufrimendua arintzen, animoak ematen eta ebanjelizatzen ere saiatuko nahiz.

- Donostiarra joatearen arrazoi nagusia zein da?

Nire herria dela. Dudarik gabe jatorriak bultzatzen du. Plaza



Setien apezpikua Elgetan izan zen Estebanek emandako azken mezan.

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara.

Tel: 768078

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak



24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262 tel:
789057-768025

bat bakante zegoela jakin nuen eta gotzaiak onartu ondoren erresidentziara etorri nahiz.

- 18 urteko gazteak gai direla uste duzu monja edo abade sartzeko erabakia hartzeko?

Uste dut baietz. Zihur badago bere buruaz eta ondo pentsatua baldin badauka bai behintzat. Beste gauzetarako "mayor de edad" baldin bada hau erabakitzeke ere gai dela uste dut. Dena dela hori berari galdetu beharko zaiola uste dut. Dudan baldin badago nik ez joateko esango nioke.

- Gazte bat apaiz edo monja joaten denean zergatik sortzen da horrenbeste esamez?

Modan ez dagoelako zorixarrez. Badakigu bokazioak nola dauden eta ez gera oso eskuzabalak.

- Elgetak erantzun al du elizaren beharren aurrean?

Behar ekonomikoa aitatzen badidazu behintzat izugarri. Hile-ro-hilero jarri dugu horri buruzko informazioa elizako tabloietan eta eukaristian ere askotan eskertu izan dugu jendearen eskuzabaltasuna. Beste parrokiatan izan denaren berri entzun eta jakin izan dut eta askotan harrituizan nahiz jendeak izan duen erantzunarekin.

- Obren balantzea.

Herritarrak esan beharko duela uste dut. Bazegoen premia eta giroa behintzat aldatua dagoela uste dut. Ez dago lehen zegoen tristora eta iluntasuna, orain apainduta dago eta horrek beste giro bat sortzen duela uste dut. Sinismena ospatzeko elizaren itxurak garrantzi handia dauka.

- Etorri zinenetik joan zaren arte haunditu edo txikitu egin da gazte kopurua?

Elizan dagoena sendotza mailan antzekoa izan da. Etorri

nintzen lehengo urtean "repeska" bat egin zen aurreko urteetan sendotza egin gabe zeudelako eta urte horretan nahiko talde zabala izan zen.

- Gazteekin egindako lana ez al da moztuko?

Ez, ez dut uste. Datorren apaiza oso jatorra da eta nik uste dut lan hori jarraitzeke ahalmena baduela. Segurazki nik baino kapazidade handiagoa izango du baztertuekin lan egindakoa baita. Onartua izango dela pentsatzen dut.

- Gogo jardunetara joateak zer suposatzen du?

Aukera bat ematea Jainkoari bere hitza entzuteko, berarekin harremanetan jartzeko... San Inaxiok asmatutako gauza bat da eta gaur arte elizan oso positibotzat hartu da eta Aita Santuak berak askotan goraiatu du lan egiteko era hau.

- Fede gehiagorekin etortzen al dira?

Bai, bai dudarik gabe. Bultzada bat da, otoitzean aritzea beti onerako izaten da.

- Abade bat eta bi monja. Bokazioaz gain beste zerbait dagoela esan genezake?

Ez. Jainkoak ematen duen doaia edo deia da eta apaizak ez du hor zeregiterik.

- Gizartean zein eragin dute klausurako erlijiosoek?

Horien lana otoitz egitea da. Hori ulertzeko fededun izan behar da; fedegabeak ez du inoiz



Esteban, Setien eta Jose Luis (abade berria) sakristian.

klausurako erlijiosoaren bokazioa ulertuko. Gaur egun dauden arazoei fede mailatik erantzutea da hauen lana.

- Zein da Euskal Herriko apaizen etorkizuna?

Ebanjelioa zabaltzeko beharra leku guztietan egongo da eta gaur egun gehiago. Baita ere esan beharra dago apaizen adina nahiko altua dela eta alde horretatik egoera latza detorrela.

- Zein aholku emango zenioke etorri berri den abadeari?

Denen zerbitzurako gogoz etortzeko lan egitera.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

HIRU URTEKOAK LEHEN ALDIZ IKASTOLARA

Ikasturte berriaren hasera dela eta Maria Jesus De la Presa eta Maite Arantzabalekin eduki genuen elkarrizketa. Lanean ziharduten gu heldu ginenean ere. Haur Hezkuntzako irakasleak ditugu biak, hiru, lau eta bost urtekoekin egiten dute lan. Aurten hamabi neska-mutikorekin egin beharko du lan Mariajek.

Irailaren 16an hasi ziren haur hezkuntzako ikastolan. Hala ere, goragoko mailen kontrara, lehenengo astean ordutegi berezi xamarra izan dute. Goizez ordubeteko lanegunaz hasi dira. Talde osoa bitan zatitu dute: 10:00etatik 11:00etara Ander, Oskar, Koldo, Maite, Garañe eta Adrianek osatutako taldea eta 11:00etatik 12:00etara Nora, Ainara, Iñaki, Aitor, Ibon eta Mikelek osatutako seikotea.

Esperientzia hau aurreko urtean probatuta zuten eta haurrak hobeto egokitzen direla ikusita aur-

ten errepikatu dute. "Haurrak errezago ohitzen dira taldera eta gainera bost egun hauek ez dute erritmoa apurtzen." Dena dela, Maitek esan digun moduan, "hasierako astebetean bakarrik egiten dugu hau. Geroko ordutegia hamarretatik hamabietara eta arratsaldean 14:00etatik 16:00etara izango da."

Esperientziak ahalbidetu du, iaz ere probatu baitzuten ordutegi hau eta oso pozik daude ematen duen etekinarekin.

Lehen ez bezala orain Elgetako ikastetxean dauden 91 haurrak aterpe berean daude. Mariajarentzako "ikastola hobeto egokituta egon arren ez dago ikasle talde osoarentzako jolaslekurik eta haur hezkuntzakoentzako dagoena konpondu bada ere, oraindik euria sartzen da, nahiz eta obra egin aurretik baino gutxiago sartu". "Orokorrean jolas-tokia nahiko txikia" dela gaineratu digu Maitek.

Gelak egon badaude eta



Lehenengotan aldrebesak gerora ogi pusketak.

inguruko herrietan haur askok bi urterekin hasten dute ikasturtea. Bi urtekoak eskolaratzeko posibilitateaz galdetu diegu eta Lupe Ibarbiaren esanetan "Elgetan nahiko zaila izango litzateke momentuz behintzat. Guraso askok bidali ere ez litzuzke egingo haurrak eta bi urterekin hasita ere, ez litzateke ezberdintasun handiegirik nabarituiko". Josune Agirre zuzendariak aipatu digun moduan, "inguruko herrietan gertatu dena kompetentzia arazoa izan da. Hiru edo lau ikastetxe dauden tokian matrikulazio kopurua igotzeko egin da gehienbat operazio hau."

Elgetan, zorionez edo zoritarrez ez dugu beste ikastetxe batekin konpetitu beharrik, haurrak lehendik ezagutzen dira. Hurremak aurrez daude haurren artean. Ezin daiteke hiri handi bateko kasuarekin alderatu. Ikusi besterik ez dago, teilatupe berean zein irribartsu dauden neska-mutiko hauek. Jakitun bilakatu bitez!



Hemendik gutxira ikastolan etxean moduan.

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

GRUPO IFA


Tel: 76 80 98.

ALDI

Berezitasuna: Buztana. Pintxo gozoak, otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JALETXEA

tel:768284



OSOBUKOA ARDO BELTZ ERARA Sukaldaria: Arantxa Aretxaga (Ostatu Jatetxea)



NOLA PRESTATU:

- Kazola batetan olio berotzen ipini eta bertan irinetan pasatutako osobuko zatiak egin.
- Barazkiak bertara bota eta biguntzen utzi.
- Bigunak daudenean ardo beltza eta brandy flanbeatu pixkat bota eta egosten utzi okela bigundu arte.
- Saltsa, purea egiteko ontzian pasa eta gero iriztontzitik.
- Flanbeatu: Janaria likorez blaitu ondoren, delako likore hori erre, zapore jakina eman asmoz.

OSAGIAK (8 pertsonentzako):

- 2 kipula gorri (handiak)
- 8 berakatz ale
- 2 azenario
- Pipar berdea (txikia)
- 1/4 pipar gorria
- 1/2 porrua (zuria)
- Boteila erdi ardo beltza "Ostatu"
- Brandy piskat
- Oliba olio (Gradu 1eko)
- 8 osobuko zati (zankarroia hezur eta guzti)
- Osobukoari laguntzeko: idarrak, patatak, alkatxofak eta ondoak.



Gomendioa:

- Ardoa "Ostatu" markakoa izatea komeniko litzateke.
- Flanbeatzerako orduan, Jerez sikua edo koinaka erabil daiteke.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
-Karta.

**BILTEGI
DENDA**
Zugandik
gertu behar
duzun beste

Salbador 24 Tel: 768206

EUSKADIKO BOLO ALDIA TXAPELKETA ELGETAN

Hiru txirlora jokatzen den Euskadiko bolo txapelketaren lehenengo jardunaldia Elgetako polikiroldegian jokatu zen hilaren 21ean.

Txapelketa honetan parte hartzeko bosteko taldeak osatu behar dira seigarren bat ordezeko bezala edukiz. Honez gain federatua egotea ezinbestekoa da bestelana hiz eta parte hartzeko aukera izan ezin du Euskadiko txapelketa irabazi. Berezitasunekin jarraituz esan, taldekide bakoitzak hiru bider botatzeko aukera duela eta azkenak "presidentearena" (jaurtiketa hau berezia da txapelketarako izateaz aparte txapelketan zehar txirlo gehien botatzen duenak sari berezi bat izango baitu) deritzana izango da.

Elgeta ordezkatzuz bi talde daude nahiz eta gehienak bergararrak izan. Elgetakoak Patxi Alberdi, Gabino Abasolo, Fernando Sarasua eta Fermin Iribar (gerentea) dira.

Bukatze eta bitxikeri bezala esan, polikiroldegira joan zirenak 93 partaideen artean bai emakume eta baita gaztetxoekin abilezia ikusteko aukera izan zutela nahiz eta gehienak txapelketan parte hartu ez.

Hurrengo jardunaldiak
Irailak 28an Leanizen
Urriak 5ean Floreagan
Urriak 19an Hiruzubietan



Zezenzaleak Nafarroa aldera

Urtero legez, kapak ganbaratik jeitsi eta Nafarroa aldera abiatu dira berrogei bat mutikote.

Joaten direnak gizonezkoak bakarrik izanda ere, azkenengo urteetan joan den jendetzarik handiena bildu dira jan-eran egun hau pasatzeko. 20 urtetik auskalo ze urtetarainoko jendea bildu ziren. Goizeko 8:30etan zerbait gosalduta eta hasiera hasieratik giroan sartzeko asmoa igarri zitekeen tabernan: salda, haragi egosia, txoria kolore guztietako ardoa... Milagrorra heldu eta hamaiketako, ondoren zezenak eta poteoa, geroxeago bazkaria. Arratsaldeko zezenak izaten dira animatuenak, izan ere, orduak aurrera egin ahala asko berotzen baita giroa. Buelta goizaldera eta ez nolanaikoa. Herri guztiak jakitzen du juergistak zein orдутan etorri diren. Zaratotsa jaiaren zati omen da.




Etxafiro hotsez joan ziren Milagrorra eta baita bueltan etorri ere.




HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Saskibaloio jokalaria

IGOR ARIZMENDIARRIETA: "HELBURU NAGUSIA KIROLA EGITEA ETA ONDO PASATZEA DA"

Arizmendiatarrek beti izan dute saskibaloirako afizioa. Bai Igorrek, bai Gorkak txiki-txikitatik jokatu izan dute herriko taldean. Guk anaia nagusienarekin egon nahi izan dugu, aurreko denboraldiko balantzea egin eta hurrengoari begira dituen helburuak jakiteko.

- Noiz hasi zineten saskibaloian jokatzeko?

Aspaldi hasi ginen jokatzeko, gaztetandik Elgetako herri eskolan. Gero urte batzuk jolastu gabe egon eta hamabost bat urterekin Eibarreko torneoan apuntatu ginen.

- Zein helburu dituzue aurtengo denboraldiari begira?

Helburu nagusia kirola egin eta ondo pasatzea da, gero txapelketa irabazteko aukera badugu askoz hobeto.

- Aurreko denboraldian bigarren postua lortu arren nahiko txapelketa txarra egin zenuten. Zeintzuk izan ziren arrazoi nagusiak?

Badirudi bigarren postu hori ona izan beharko lukeela baina zorte piskat gehiagorekin lehenengoak izan gintezkeen. Bi edo hiru partidua azken segundotetan galdu genituen eta partidua askotan

bost jokalaria elkartzeko arazoak izan genituen.

- Badaramatzazue zenbait aste entrenatzen. Non entrenatzen duzue?

Polikiroldegiko gimnasioan entrenatzen dugu ostiralero; askoz hobeto izango zen astean zehar beste entrenamenturen bat egitea baina ezinezkoa zaigu jendeak lan egiten baitu eta beste batzuk ikasten daude.

Uda aldean kanpoan entrenatzeko ohitura geneukan, baina gaur egun ezinezkoa da bi kanastak apurtuta baitaude. Barruko kanastak ere apurtuta daude baina jokatzeko posible denez ahal duguna egiten dugu.

- Eibarreko txapelketan zer nolako maila dago?

Maila ez da txapelketa federatu baten bezalakoa, baina ez dago hauengandik oso urruti.

- Ez al duzue inoiz federatzerik pentsatu?

Pentsatu egin dugu baina horretarako dirua behar da eta ez gutxi. Norbaitek diru hori eskainiko baligu pentsatuko genuke.

- Dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

Lehen bi talde geundenean

uste dut udaletxeok zerbait eman zigutela, baina gaur egun Estampaciones Elgetak laguntzen digu uniforme eta inskripzioa urtero ordainduz.

- Giro ona al dago talde barruan?

Giroa ona da gure artean nahiz eta askotan kantxa barruan hasarretu gero aldagelatan denok gara lagun.

Askasibarrek ez du aurtengo denboraldian gehiago parte hartuko lasterketetan

Goierriko itzulian parte hartu ondoren Oskar Askasibarrek denboraldia amaitutzat ematea erabaki du. Elgetako kriteriumean korritu ondoren arazo ezberdinak direla medio -gripeak jota egon da ez du denboraldi amaiera ona eduki, nahiz eta oraintsu korritu duen Goierriko itzuliko lehenengo etapen kilometro askotan zehar ihes eginda ibili (3. etapen istripu ikusgarria eduki zuen baina zorionez ez zitzaion garrantzizko ezer gertatu).



Galdaragintza arina
Hoditeria
Errementeritza
Soldadura homologatuak

Antonio Rodrigues Da Cruz

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etsaurreak

Sukaldeak
Komunak

Quizango Behekoa Baserria. Tel: 860156



OPOR EGUN HAIETAZ

Aurten ere Elgetarrak munduan zehar ibili direla ezin ukatu eta gutako askok elkarrekin topo egiten dugu toki askotan. Dena den bi kasu dakartzizuegu, Maite Elkoro Keniako lurraldeetan ibilia eta Jabier, Gorka eta Jose Luis Puerto Rico inguruan. Elgetarrekin ez dute topo egin urrutiko lurralde hauetan, horregatik guztioi kontatzeko hainbat gauza ekarri dituzte.

Maite Elkoro Afrika beltzak erakarrira 5 astez ibili da Keniako lurretan barrena. Oporraldi berezia izan daiteke askorentzat motxila bizkarrean eta joan etorri-rako hegazkin txartelarekin atera baitzen. Helburua bertakoen eguneroko bizitza, kezkak eta pozak bizi eta ezagutzea.

Hanburu mendietan

Lehen astea hantxe pasatu zuen. Eguraldia oso txarra zen eta kanpinean lo egiterik ez zegoen. Herrixkako biztanleek beraien etxea eta ohea eskeini zioten. "Ezin duzu ezetz esan, ez baitute ontzat hartzen" zioen Maitek. Herrixka hauetan ez dago argirik ez eta urik. Goizero iturrira joan beharra dago ura lortzeko. Hanburukoak, Masaien antzekoak dira baina mendietan bizi dira. "Gehien jaten dutena artoa eta arrosa da. Baina barazki ugari eta oso onak dituzte". Abel-tzantzatik bizi dira eta nekazaritza atzeraturik dago. Etxerako baino ez dute landatzen.


Hizkuntzarekin izan zituen arazoak denborarekin desagertu ziren, bertakoek suajilia hitzegiten dute eta ingelesa eskolan ibili direnen artean ezagutzen da. "Hala ere batera edo bestera denok ulertzen ginen". Umeak zazpi urtekin hasten dira eskolan eta hamabirekin amaitu ikasketekin jarraitzen duenik ere badago. "Herri hauetan ezer gutxi dago, irtenbide bakarra askotan hirigune handietara joatea da, Nairobira esaterako baina han irabazten duten dirua, ezin dute aurreratu, hiria garestia baita behartsuenentzat".

Hanburu mendietako bizi modu gogorak, ohi-turetan ere badu bere islada. "Bertako bi ohi-tura oso gogoran ditud, lehenak dio, etxea edo mañata emakumezkoak egin behar duela bestela gizonezkoak egingo balu, animaliak hilko bailirateke. Bigarrena berriz gogorrago da, semerik izan ez duen gizona zuhaitzetik zintzilikatzen dute. Nik ez nuen horrelakorik ikusi baina nork daki... Adibidez, ezkongai dagoen emakumeak bere lepokoan azkenengo le-rroa txuria eta beltza eramaten du. Emakumeak oso altuak dira eta ederrak ere bai".

Nairobin

Aste bete hiria ezagutzen pasatu zuen. 1,5 milioi biztanle eta horietatik 1,3 milioi auzoetan bizi dira, egoera tamalgarri eta gogorrean. Kenia mendebaldearekin antz haundiena duen lurraldea bada ere, han ikusitakoak ikusita gaintzekoak nolakoak diren galde-tzen dio Maitek bere buruari. Lapurketarik eta biolentziarik ez dagoen herrialdea da orohar. "Industriarik ez dago guk dugun bezala, zerbitzu ugari daude eta turismotik bizi da jendea".

Hemen ere autobusekin izan zuen gora beherarik, "autobu-setan jendea gainezka dago, ikaragarria da ez dago tokirik eskua mugitzeko. Behin sartuz gero irtetzea oso zaila da. Ahalegin guztiak eginda ere, nire geltokitik kilome-



Haurrek duten jostailu bakarra errubera hauek dira.

tro batera gelditu nintzen".

Nairobiko unibertsitatean lan egiten zuen irakasle bat ezagutu zuen, "dantza eta musika erakusten du eta horretaz gain musika instrumentuak egiten ditu saltzeko, erritmo eta musika bitxiak eta ikaragarriak dira. Irakasle honen helburua ekialdeko kostaldean zuen familiarengana joatea zen bizitzera, eta han musika eta dantzen eskola bat zabaltzea".

Kostaldean egun batzutan

Herrialdearen ekialdean dago kostaldea, Indikoan. Egonaldi honetan, 17 kide zituen familia baten egon zen Maite. "Familia honetan haur pilo zegoen eta nik goxokiak eta globoak eraman nizkien. Alaitasun handia dute; materialki ezer ez badute ere, poza eta imaginazioa gainezka dituzte".

Goxokiak eman eta gero falta zen lagunarentzat gordetzen zuten. Beste behin janariaren arazoz kontzientziaturik, gailetak edo jangarria izan zitekeen zerbait era-



man nien, ez zituzten emandako gailetak jaten, baizik eta hainkada-txo bat eman eta poltsikora. Paregabeko imaginazioa dute beraien jolasetan eta herrian zuten jolas bakarra, gurpil batzuz eta makila batzuz osatutako tramankulu bat zen".


"Jende honek, duena emateko prest dago oso irekia da. Joan aurretik beraz opari bat egitea iruditu zitzaidan. Ez nekien zer izan zitekeen erabilgarrien eta bat batean ura garraiatzeko zituzten zailtasunak ikusita, obratan erabiltzen diren karretila horietako bat erostea erabaki nuen. 5.000pta zen bakarrik baina bertakoentzat inoiz iritxi ezineko luxusko tresna bat. Ondoren karretila babaz eta mota askotako janariz bete nuen".

Itzulera

Hegazkina hartu aurretik, bost egunetako safaria egin zuen. "Keniara hurbiltzen diren turista gehienak safarietan pasatzen dituzte oporrak eta oso garestiak dira. Nire helburua ez zen hau, baizik eta bertakoekin bizitzea. Animaliak eta ikustea ondo dago baina hilabete osoan horretan jardutea ez nuen nahi".

Gorka, Jabier eta Jose Luis

Hegazkin txartelarekin eta ondo pasatzeko intentzio biziz atara ziren Madrildik Puerto Ricoko parajeak ezagutzera. 8 ordutako bi-



Lepoko bakoitzak bere esangura du. Adib. azkenengo zuriak ezkongai dagoela.

daia egin ondoren iritxi ziren halako batean San Juan de Puerto Rico. Munduan zehar ibiliak dira aurreko urteetan ere, Colombia, Maroko, Tailandia, Cuba, Grezia, Santo Domingo...

Lurreratu zirenean, informazio bulego batetan oporrak antolatu zituzten, non lo egin, zer ikusi, nora joan, juergetarako tokiak...

Hiria ezagutuz hasi zuten 15 eguneko oporraldia, "hiria oso handia da eta batetik bestera ibiltzeko taxia beharrezkoa da. Taxiak oso garestiak dira".

Hiru egunez aritu ziren hiriko txokoak ezagutzen eta toki garrantzitsuenak ikusten. "Aintzinako

eraikin asko dago eta horien artean San Felipeko harresia. Lehenago hiri osoa zegoen sartuta horma hauen barruan, espainolek egin zuten hiri hau eta gotorleku bezala erabiltzen zuten.

Eta hirugarren egunean...

Denok dakigu bidaiatzera goazenean horrenbeste egunetarako zenbat diru eraman behar dugun. Gorka Jose Luis eta Jabierrek ere dena prest eraman zuten. Hamabost egun, beraz, horrenbeste dolar. "Aurreko hilabeteetan aurreratutakoa hamabost egun lasai pasatzeko". Jabierrek esan zigun moduan "dena primeran hoteleko gellan geneukan diru guztia harrapatu ziguten arte.

Dirurik ez aldean eta buelta egitea pentsatu genuen. Bueltako abioia zenbat kostatzen zen galdetu eta bertan geratzea baino gehiago irtetzen zuela jabetuta Hiriburuan geratzea erabaki genuen" Gauzak hobeto irtetzen hasi zitzaizkien ordutik aurrera. Hiriburuan bertan juergatxoren bat edo beste egiteko aukera izan zuten. "Gainera ikusiko ez genuela uste genuen reggae kontzertua ikusi ahal izan genuen. Kontzertu mundiala Culture eta bertako talde reggae batzuekin". Ez dute bidaia erraz ahaztuko eta hurrengo baterako lezioa ikasita dutela ere aipatu ziguten. Hori bai, hirugarren egunak eman zien buruhaustea izanda ere ez dute berriz bidaiatzeko gogoia galdu.



"Hondartzak behintzat ez dute hemengoan antzik ere, garbi-garbi daude"

PITOKERIXAK

Berriro be hasi naiz berba arraruak asmatzen eta oin-guan pitokerixia asmatu dot. Hasiera hasieratik esan bihako dot ze

dan pitokerixia, pitokerixia pituan izenian eitten dan lelokerixia da, gehixenetan pitodunok eitten douz pitokerixak, baina batzutan pitobakuek be eitten dittue.

Baten bat hasi da honezkeroreguntez: "ze demonio ete jakibik hori? Ze lelokerixia eingo ete dok pituan izenian?" Beste argixagoren batek asmau dau honezkerore: "han berriro be arrazoi guztixa dauka azkenengo hau pentsau dabenak, sermoiak bota biha dien lekutik, aldaketak diela eta, edo beste edozergatik, sermoirik botatzen ez badabe, beste nonbaitetik botako douz, ezertarako baioko ete daben esperantza haundirik ez izan arren.

Eta sermoi horrekin jarraituz esan daidan lehenengotik urtero eitten dien pitokerixak be pitokerixak diela, nahiz eta urtero ein. Baina pitokerixahorrek "HERRIAREN" izeian eitten die batzutan eta holako dotoretasun herritar, herrikoi, edo batek daki zer hartzen dabe eta orduan pitokerixa dotore, herritar, herrikoi eta, nahi badozue baita abertzale be, bihurtzen dia; baina, hala ta be pitokerixa izaten segitzen dabe.


Garbi geratu da, orduan, Irunen San Martzialetan, Hondarri-

bian Guadalupetan eta Elgetan udazkenian eitten dienak pitokerixak diela. Pitokerixa haundi bat dalako hartu eskupetia (kirten bakarra gutxitxo aukeran) eta tanborren soinuaz kalia zihar gora eta behe- ra ibiltzia, eta pitokerixa haundi bat dalako goizeko lehen ordutik etxaleruen zarataz herri guztixa esnatu eta gero Nafarroa aldera juatia, zezentxo batzugin jolasian ibili, inondian danak edan eta bestelakuak eittiera, (ez deila iñok preguntau bestelakuak ze dian horrek sermoian ezin dia aittatu eta).

Baina pitokerixa horrek pertsona batzuntzat ez dia pitokerixa, ohorezko asunto latza baino, eta pitobako batzuk horretan parte hartu nahi izan. Geratu deila garbi nere gustorako hori beste pitokerixa haundi bat dala, baina ona da noizian behin pitokerixak eittia, bestela asperraren asperrez hil eingo giñake eta.

Asunto grabia beste hau da: pitobakuei ez lagatzia pitokerixan parte hartzen. Horretarako iñok ez dauka eskubideik, atso ala agure, neskato ala mutiko, neskazahar ala nutilzahar, andra ala gizon, iñok eskupetia bizkarrian hartu eta pasiatzeko gogua badauka eskubide osoa dauka hori eitteko, eta baita gonatxuak jantzi eta ardaua errepartitzen ibiltzeko be, horretarako ez dago guapua izan beharrik; eta beste iñok zezentxuekin jolasian ibili, munduan dien danak edan eta bestelakuak ein nahi badditu be eskubide osoa dauka hori eitteko.

Jabier Arantzeta



7
L
E
A
P
A
N
D
E
G
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Elorrio bidea z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanzioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

M^a Karmen
Lenzeria

Lenzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040



Argazia Manu Saratsua

Jai giroan San Ferminetan

Udazkenean sartu garenez, udako atsedendia gogoratuz, orain dela 27 urte ateratako erretratu honekin gatozkizue. Erretratua Iruñean aterata dago, San Ferminetan. Ikus dezakezuen moduan bai orain eta bai lehen ere jaiak ondo ospatzen ziren.

Euskal herriko paraje askotan daude orain ere jaiak ospatzen. Aprobetxatu aukerak laster dator negua eta. Momentuz San Migelak gainean ditugu. Ez da santu makala San Migel, Angiozarren behintzat jai eguna ekarriko die Santuak.

Pasa gaitzen bertan ageri direnen izen-abizenak ematera. Ah! eta ondo pasa udara bukaera honetan, oraindik geratzen dira ondo pasatzeko moduko jaiak eta.

Ezkerretik eskubira: **Juan Luis Arizmendiarieta**, **Santi Arantzabal** (kapelia erdi jantzita daukana), **Jabier bBasauri** (erdikoa), **Luis Mari Arantzeta** (zutik dagoena), **Manu Saratsua** (kapeladuna), **Iñaxio Elorriaga** (Abade) eta **Gotzon Elkoro**.

* Etxean erretratu zaharrik baduzu ez izan dudarik bidali *Goibekokalera*. Argitaratu ostean bueltatuko dizugu argazia.

EUSKAL HERRIA EUSKALTEGI BIHURTU DUGU!



ELORRIOKO AEK

**Euskara ikastaroak
maila guztiak
Alfabetatze ikastaroak**

Alfabetatu zaitez, urte beteko kontua da eta!
Klaseak goizez, arratsaldez eta gauez.

Informazioa eta matrikula:

ABIZARI EUSKALTEGIA, SAN JUAN 23.

Tel.: (94) 6582111. Elorrio

- *Goibekokale* irakurtzeko
oztopoak izaten dituzula?

IZAN

-Euskaraz idazten jakin
nahi duzula?

- Euskaraz bizi nahi
duzula?

Zer hobeto inguruko
euskaltegiren batean izena
ematea baino. Ez galdu
aukera, ez zara damutuko
eta. Aurrerantzean
Goibekokale orriak pasatu
gabe ere irakurtzeko gai izan
zaitezke.

Goibekokale

EUSKALDUN